



“Airearen kutsadura kezkatzeko modukoa da Espainian”

Juan Barcena

Ekologistak Martxan

Ekologistak Martxan erakundeak argitaratu duen txosten batek dioenez, Espainiako Estatuko biztanleen % 94k kalitate txarreko airea arnasten dute, Osasunerako Mundu Erakundeak gomendatzen duena baino txarragoa. Txosten horren egileetakoa den Juan Barcena biologoak dioenez legea ez da kutsatzen dutenekin behar bezain zorrotza eta erakundeek informazio gutxi ematen dute gai honen inguruan. “Airearen arazoak urtean 20.000 heriotza goiztiar eragiten ditu Espainiako Estatuan”.

Zer diozu Espainian arnasten den aireari buruz? Egoera kezkatzeko modukoa da, baina inguruko herrialdeen antzekoa. Beste herrialde batzuetan, ordea, neurriak hartzen dituzte, baina Espainian erakundeek ez dituzte herritarrak informatzen eta gutxietsi egiten dute arazoa. Ezin jakin zehazki zenbat pertsonari eragiten dion edo bizitza zenbat laburtzen duen, baina inolako zalantzarik gabe esan daiteke heriotzak eragiten dituela.

Erakundeek ez al dute ongi informatzen? Espainiako Ingurumen Ministerioak (MAGRAMA) esaten du eskumen hori autonomia erkidegoei eman zaiela, eta ez du informaziorik ematen. Autonomia erkidegoek datu gordinak argitaratzen dituzte, adituek bai baina jende arruntak ulertzen ez dituenak. Erkidegoetako arduradunek ziurtatu egiten dute airearen kalitatea ona dela, eta erkidego bakoitzak asmatzen dituen irizpideak hartzen dituzte aintzat hori esateko. Alemanian ere lander direlakoei emana diete eskumena, baina badute leku bat herrialde osoko datu historiko ulergarriak eskaintzeko eta denbora errealean jakinarazteko.

Zuk diozunez, legeak onartzen dituen kutsadura-mugak gainditzen dituen airea arnasten dute Espainiako

herritarren % 22k, baina OMEren irizpideak erabiliz gero, % 94 izango lirateke. Osasunari egiten zaizkion kalteen frogetan oinarritzen da OME. Europako Batasunak bertako kide diren estatuei ezartzen dizkien mugetan, alderdi ekonomikoak eta politikoak era hartzen ditu aintzat. Adibidez, PM2,5 partikula esekientzat –horiek dira kaltegarrienetakoak– legeak batez besteko muga bat jartzen du urte osorako, 25ekoa, baina AEBetan 15ekoa da muga eta OMEk 10ean jartzen du. Eta 2013. urtean berraztertu egin behar dira mugak. Ingurumenaren Europako Agentzia, zeinaren txostenak gureak baino kritikoagoak diren, presioa egiten ari da muga horiek zorrotzeko, eta Belgikako Gobernuak ere bai. Arazoa, izan ere, gero eta larriagoa da.

Larriagoa? Bai, datuak berrikusi ahala. *Smog* delakoak, Londres 1952an kutsatu zuen laino hark, 4.000 lagun heriotza eragin zuen bere garaian egindako kalkuluen arabera. 2002. urtean, berrikusi egin zuten, eta 16.000 hildako atera zitzaizkien. Europako Batzordearen eta MAGRAMAren dokumentuetan, Espainian urteko 16.000 heriotza goiztiar izaten zirela onartzen zen garai batean. Azkenekoz eguneratu dutenean, 20.000ra joan dira (70.000 EB guztian).

Herritarrak kexu dira lehen baino asma gehiago dutelako, alergia gehiago... Espainiako Alergologia Elkarteak dio kutsadurak zerikusi handia duela.

Erakundeek diote azken hamarkadetan hobetu egin dela airearen kalitatea. Kutsatzaile asko murriztu egin dira, baina beste batzuk ugartu. Joan den mendeko 50eko hamarkadan, orain baino txarragoa zen airearen kalitatea, hiri erdi-erdian izaten zirelako industria kutsatzaileak, ikatz-galdarak bazirelako, beruna zuen gasolina, eta abar. Hori dezente murriztu da. Baina

oraingo kutsatzaileak, PM2,5 delakoak, adibidez, arnas aparatuko eta bihotz-hodietako gaixotasunak sortzen dituzte, eta substantzia kantzerigenoen sailean ere sartu dituzte berriki.

Nork sortzen du kutsadura? Hirietan, autoek gehienbat. Nitrogeno dioxidoak (NO2) dira arazotsuenak, baita PM2,5 eta PM10 direlakoak ere, eta ozono troposferikoa ere bai. Azken hori ez da ihes-hodietatik ateratzen, baina hiri inguruei eta landa-eremuei eragiten die, ustez aire garbia dagoen lekuei; Madrilgo mendilerroari, adibidez.

Auto-ekoizleek diote murriztu egin dituztela isuriak. Baina gero eta auto gehiago daude eta beti ez dute murrizten: ikusi da autorik berriek NO2 gehiago isurtzen dutela aurrekoek baino, proba teknikoak ez zituztelako egin egiazko egoeretan.

Salatu izan dute jokabide okerrak erabili dituztela zenbait hiritako airearen kalitatea neurtzen duten kontrol-postuetan. Zaila da kutsadura mailak neurtzea, baina badago pika-reska, bai. Horregatik eskatu genion MAGRAMAri autonomia erkidegoen jarraipena egin dezala. Araudia betetzen ez bada, EBk zigor espediente bat abiarazten du. Espainiak pilatu ditu batzuk, eta isunak jasoko ditu. Gainera, kutsadura murrizteko plan bat abian jartzera behartzen du.

**Zein hiritako airea da kalitate txarre-
nekoa?** Zaila da alderatzea. Dena den, hiri handiek, zirkulazio ugari dutenek, kutsadura gehiago dute. Industria gehien duten inguruak datoz ondoren, eta landa-eremuak gero, ozono troposferikoaren eraginez.

Zer egin dezakegu herritarrok? Arazoa zenbatekoa den jabetu eta autoa ahalik eta gutxien erabili. Hori erraztuko duten neurriak ere behar dira, jakina.